

«Eskumenik ez badu, ezer gutxi egin de...

Saved to Dropbox • 22 Nov 2017, 12:14



berria

[SORTU KONTUA](#) | [SARTU](#)

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA
2017

bertsozale.eus

Ekonomia >



JOXE RAMON BENGOETXEA. ZUZENBIDEKO
DOKTOREA

«Eskumenik ez badu, ezer gutxi egin dezake Europak»

Esparru sozialean aurrera egiteko aukera ikusten du Bengoetxeak, Europako Batasunean gutxiengo batzuk ezarrita, baina ondoren tokian tokiko erakundeei elkartasun sozialaren neurria erabakitzen utzita.



2017-11-18 / Ivan Santamaria

Zuzenbideko doktore da Joxe Ramon Bengoetxea (Irun, Gipuzkoa, 1963), eta Europako zuzenbidea irakasten du EHUn. Gainera, Eurobasque Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluko idazkaria eta EHUguneko koordinatzailea da.

Europak beti ikusi du bere burua ongizate estatuaren ikur edo eredu gisa, baina eraikuntza ekonomikoa beti

jarri izan da eraikuntza sozialaren gainera. Zergatik gertatu da?

Hasteko, eskumenak hasieratik arlo ekonomikoan zeudelako. Estatuek eutsi egin zieten eskumen sozialei, eta ez zituzten komunean jarri. Hasierako sinesmena zen hazkunde ekonomikoak, oparotasunak ekarriko zuela estatu soziala, eta urte batzuetan hala izan zen, edo horrela zela zirudien.

Garai batean argudiatzen zen konbergentzia ekonomikoak ekarriko zuela konbergentzia soziala, baina ez da gertatu.

Krisiak dena aldatu du. Hasierako dogma zen zuk diozuna. Diru transferentziak ez zirela egingo, edo bakarrik oso modu apalean, kohesio politikaren bidez, eta hazkundeak ekarriko zuela

konbergentzia soziala. Ez da gertatu, baina galdetu beharko genuke nolakoa zatekeen egoera Europako Batasunik egongo ez balitz. Euroari leporatu zaio austeritate politika, baina hori gabe, estatu bakoitzeko monetarekin, nolakoa izango zen devaluazioa? Nolako ondorioak leudeke? Ez dakigu.

28 herrialde izatera iritsi zen batasuna. Etorkizuna bermatua du hainbesteko ezberdintasun sozialak egonik haren barruan?

Galdera zaila da. Azken finean, Europa izango da Europako biztanleek eta herriek nahi dutena. Gertatzen da oraintxe gogoak eta nahiak oso ezberdinak direla. Ez dago garbi zertarako nahi dugun Europa hori. Batzuek nahi dute soilik merkatu bateratu bat. Eta ez

da bakarrik Erresuma Batua. Beste batzuek askoz harago joan nahi dute, batasun politikorantz. Garbi dago Europak bermatu beharko dituela arlo sozialean gutxieneko batzuk, baina uneotan estatuek ez diote eskumen hori pasatu nahi, eta herritarrek ez badute egiten eskaera sendo bat, estatuek ez dute inolako presiorik sentituko euren jarrera aldatzeko.

Krisiari eta populismoei erantzuteko tresna Eskubide Sozialen Europako Pilarea da. Zer espero daiteke horri buruz?

Suedian antolatu da goi bilera, eta badauka Europa iparraldeko herrialdeen ereduaren kutsua, oso interesgarria dena. Neurri batean eta hitza bera aipatu gabe, atzean badago malgusegurtasunaren ideia. Kontu handiz ibili dira hitza

bera ez aipatzeko, oso kritikatu
izan delako, baina ereduaren
atzetik halako zerbait ikusten da.
Ikusten da zurruntasun handia
dagoela hegoaldeko herrialdeetan.
Pentsa erreformen aurka dauden
kritikak. Erreforma batzuk
beharrezko gisa ikusten dituzte,
baina horiekin batera egon behar
dute laguntza batzuek, batez ere
laneratzea errazteko eta
enplegagarritasuna hobetzeko.
Hortik doa gogoeta. Sentsibiltate
sozial bat ere islatzen du.
Barneratzaile izateko eta inor
bazterrean ez uzteko ideiak hor
daude.

**Kritikoek diote asmo onez
betetako agiria dela, baina
balio juridikorik gabekoa.
Loteslea izan gabe, zer
garrantzi aitortu behar zaio?**

Estatuentzat eroso da hori. Eurek daukate azken hitza politika sozialen inguruan, eta eskubide sozialak eta lan zuzenbidea arautzen dute. Europa mailan egin daitekeena *soft law* da, legedi biguna. Horrela sortu zen duela hogeitun urte Luxenburgoko prozesua ere, enplegurako politika berri bat lortzeko xedea zuena. Ez zitzaion inolako eskumenik aitortu batasunari, estatu bakoitzak bereari eutsi zion, eta asmatu zuten formula berri bat: koordinazio metodo irekia. Hor jarraitzen dute. Izena aldatuz doa, baina funtsean gauza bera da. Eskumenik gabe, ezer gutxi egin dezake Europak, zuzenbide aldetik.

Zerbaiten falta sumatu duzu pilare horretan?

Erraza da esatea Europari alor sozialean eskumenak eman behar

zaizkiola, baina kontuz, zeren eta gero gutako bakoitzak erabaki nahi du zenbaterainokoa izango den gure elkartasuna.

Subsidiarioritasunaren aldetik, guri gustatuko litzaiguke *euskal* definizio bat eman ahal izatea elkartasun horri. Europatik erabakiko balitz, beharbada galdu egingo genuke hainbat eskuduntzaren kontrola.

Esaterako, kotizaziokoak ez diren gizarte laguntzena (DSBE).

Asmatu beharko genuke oreka bat topatzen. Tokian tokiko eskumenei eustea, baina gero gutxieneko batzuk ziurtatzea European. Oreka lortuko balitz, urratsak egin daitezke EBri eskumen batzuk pasatzeko.

Eskubide sozialen harmonizazioa egingarria da? Ikusiko ditugu gutxieneko soldata edo langabezia aseguru europarrak? Desiragarria da sikiera?

Hori da lehen galdera.
Desiragarria? Zer baldintzarekin?
Egin liteke kopuruak erabat ezarri
gabe, tarte batzuk finkatuta.
Esaterako, esan daiteke laguntza
sozialak izan behar duela
gutxieneko soldataren ehuneko
bat, gutxienez, eta gero leku
bakoitzean hartu azken erabakia.
Malgutasun elementu
interesgarriak sor daitezke.
Europar partekatuko genituzke
printzipio eta eskubide batzuk, eta
gero bakoitzak erabakiko luke bere
gizartean zenbaterainokoak izango
diren.

**Erresuma Batuaren irteerak
erraztuko du urratsak egitea
eraikuntza sozial horretan?**

Ez derrigorrean. Ez du erraztu
barruan egon denean, baina
susmoa dut ea ez ote zuten besteek

haren jarrera aitzakia gisa
erabiltzen, aurrera ez egiteko. Ez
nioke erru guztia botako. Beti
egongo da tentsioa eskubide
sozialen eta merkatuen artean.

Orain

berria *laguna* **gehiago da**

PUBLIZITATEA

Musik
-ON-

MUSIKA ARETOEN ASTEBURUA

23 - 26

AZAROA - NOVIEMBRE

Ekonomia saileko albiste gehiago

Gaiarekin zerikusia duten albisteak

Albiste honen antzekoak prozesatzeko daude.

Berria.eus - Euskal Editorea SM

Telefonoa: 943 304 030 •

Faxa: 943 590 172

Helbide elektronikoak:

Webgunea:

webgunea@berria.eus |

Publizitatea:

publi@bidera.eu

Harpidetza:

harpidetza@berria.eus

Lege Informazioa
Pribatutasun politika

© Cookieak

Creative Commons lizentzia

Publizitatea:

Bidera zerbitzuak



zerbitzua eta
lana euskaraz

Euskadi, auzolana



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia

berria
taldea

berria

bidera
zerbitzuak

HITZA

Ilauka

BADOK

